



PORTU XOKO

Piarres Larzabal

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (I)*, Piarres Larzabal
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1991

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalPortuTxoko.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

PORTU XOKO

(Lau gertalditako ikusgarri irrieginarria - 1954)

Jokalariak:

URTXULA: 20 bat urte, neskatxa azkar eta basa.

ALETXANDRA: 50 bat urte, boza larrisko.

KATALIN: 60 bat urte, boza larri-larri, sudurra gorri.

MANANTS: 25 bat urte, ezpainak beti irriz lore, hilibili halabala kurritzen.

ZURRUT: 40 bat urte, boza larri, sudur gorri.

PEPE: 20 bat urte, jostakin, baza ezti.

BITOR: 30 bat urte, boza idor.

KALAXKA: 60 bat urte, txar, dena zain, ahuntz bozarekin.

POTZO: 60 bat urte, gizon pisu, boza larri.

JITO: 15 urte, zingil eta trapuki bezti.

Bertze asko, gizon eta emazte, agertu gabe mintzo direnak, karrika leihoetarik eta radioaz.



LEHEN GERTALDIA

Joka-lekua:

Kaia ezkin bat. Murruaren bertzaldean itsasoa... Honaindian: jar toki bat, eta karrika-ezkin hedatu bat.

ZURRUT: (*Arrantzan ari, murru gainetik*) Zer zagozte? Beha zer aterako dudan? Ni ere hala nago... Afariketarat etorri, eta afaria urean. Korrokoin zikinak!... Multzo osoa hor dabila amuaren inguruan... Eta bilabatek «hau» pako bat ez diotela eginen amu horri! Korrokoin pildak!... Apasta, hiru aldiz segurik saildatu diotet... Bota zizari, zardin zahar ustel, bota ixkira... inguruko apasta guzia jaten dute, salbu amuko hura.

URTXULA: (*Agertzen da*) Ai-zu Zurrut!

ZURRUT: Zer dun?

URTXULA: Sarriko padera handia, biar det berotu, zuri afaria jartzeko ala padera txikia aski izango dezu?

ZURRUT: Egin zan trufa... Zer uste dun?... Atzo ez dinatala deus ekarri-eta, egun guziz otarrea zilo etorriko naizela?

URTXULA: Zer-nahi arapatu dezu naski?

ZURRUT: Ba... Baditinat beti bortz korrokoin ederrak... bi mutzurdin... Eta, amuari hurbil hor ikusten dinat dabidala hiru kiloko lupina kozkor bat... Eta sarriko, hire padera utzi-eta, eltze bat apailatzen ahal dun... Ez, freitura txar bat, bainan ttoro saltsa on bat muntatzeko.

URTXULA: Ikusi otarre hori!

ZURRUT: Utz-an otarre hau bere gisa... Ez zanala hori hunki. (*Urtxulak balere miatzzen dio otarrea*) Neska izokin basa... Utz-an hori.

URTXULA: Hi, hi, hi! (*Irriz*) Hemengo korrokoinengatik, berritz ere kaka mehe egin biarko dezu.

ZURRUT: Hi... Urde Hondarribitar moko zikin umea!...

URTXULA: Bai... Hondarribitarrentzat badezu beti zerbait esateko... Baño, biarrik dezu ni bezalako Hondarribitar bat zure zerbitzeko...

ZURRUT: Ez naun hik biziarzaten!

URTXULA: Jaterat ematen segurik, nik egiten dizut gure tabernan.

ZURRUT: Zuen ostatuan, hik eta hire ostatuko andreak baduzue ni bezalako kliant on baten beharra.

URTXULA: Bai, zu bezalako parrokiario, beti zorretan bizi den baten biarra. Eta gainera, etxeko andrearen ixilik, nik emaneri esker bizi dena.

ZURRUT: Hik, zer pasatzen dautan niri?

URTXULA: Hamaika eta hamabi pokado bai, nik zuri ixilik pasatzen gure tabernan... Eta, gainera, zure garbitzea eta zure puska tzarren konpontzea nik egiten... Atzo azkenik, ez banitu nik orratz eta haria eritan ibili, egun, galtza ipurtik ernari, jende guzien farragarri izango baitzineke...

ZURRUT: Ez haiz urririk ari!... Kontuetan markatzen dun, egiten dunan lana?...

URTXULA: Zer zor duzun apuntatzen det bai, bainan aise altxatzen ere zuk ematen dezuna.

ZURRUT: Nere zorrak pagatu ditinat. Ez ditinat ukatzen. Ikusiko dun atun sasoinean.

URTXULA: Atun sasoinean bai!... Zer nahi egingo dezue atunarekin... Gero ikusiko. Jadanik, gure etxean gela galdu dezu, eta, gainera, taberna ere agudo galduko dezu. Hasteko, etxeko andreak esana dit, ez gehiago zuri deus ere zerbitzeko, eri puntetan diruarekin baizik.

ZURRUT: Ikusiko dun bertze ostatu batetara abiatzen banaiz.

URTXULA: Bai, zeinek hartuko zaitu?

ZURRUT: Gela niri kentzean hauxe bera erraten zinuten... Ez nuela nehon oherik atzemanen... Atzeman dinat haatik.

URTXULA: Bai... Non?

ZURRUT: Ez dun hori hire jakitekoa... Nik lo egiteko tokia atzeman beti!

URTXULA: Bai... Zer uste dezu? Ez degula jakina? Barkoko patroinak berak esanik-eta... Ohea badezula bai, bainan non?... Barkoaren tripan... Urrikariz, kalia eman dizula gauazko «pentsioea».

ZURRUT: Eta denak nonbaitik zilatzen... atso bakalau buztanak!

URTXULA: (*Kanabera hunkituz*) Eta zure lupina horrek ez du oraindik jaten?

ZURRUT: Utz-an seska hau bere gisa.

URTXULA: Bo... Ase-ta, pausan izango da.



ZURRUT: Urrun hadi hemendik hi, santsusi tupiña... Eta, jar hadi hor, alki hortan. (*Irriz obeditzen du*) Hi bezalako neskek ez liteken bizi behar ere... Mundu hau pozoinatzeko bertzerik ez baitzarete.

URTXULA: Zer nauzu?... Hiltzerat kondentatzen?

ZURRUT: Hi, eta hi bezalakoak, behar litezken batteliku batean sartu, itsaso zabalerat ereman, eta han, matapitxa batekin lepo zokotan jo, eta, marrazoeri jaterat botatu...

URTXULA: Marrazoek nahiko ote dute ni bezalako peita kiretsa? (*Ixtant bat ixilik dagozi*)

ZURRUT: No... Hire gizon gaiak hor zabiltzan hire ondotik.

URTXULA: Nere gizon gaiak? Ba ote? Nor?...

ZURRUT: Bitor eta Pepe... Ostaturat gaki ditun, ustez eta han haizen: (*Oihuz*) Bitor! Pepe!... Tana zaitezte hunarat... Hemen duzue zuen nonina...

BITTOR: Zer motari ari haiz hor, Zurrut?

URTXULA: Baratxe mintza zaitezte... Hiru kiloko lupina omen du arruaren kostagoan. Nik uste xitan dagon lupiña koloka zenbait izango du... hiru ordu hautan segurik hor dago beha noiz, atzarri-ta peita jango dion!

BITTOR: (*Irriz*) Nonina pikoka ari zaik to, Zurrut... Hire lupiña hori gehiago ez ernatzeko, zer duk?... Arrunt tupiña?

ZURRUT: Ba... Hor ziagok mugitu ere gabe... Nik uste, Hondarribiko gallego zenbaiten haragiz ase-ta, ezin leher eginez ari duk.

BITTOR: Beldur nauk mantta ttikia tiratuko dukala hortarik! (*Bitor eta Pepe jartzen dire Urtxularen bi bazterretan*)

ZURRUT: Hi, gure bornuko patroin handia, pentsatzen diat aurten, hire katalotxak ongi argiturik, gidatuko dukala gure zalupa. Eta, gan den urtez baino toki gizenagoetara eremanen gaitukala.

BITTOR: Ikusiko duk to aurten... Portuko manttarik handiena guk aterako baitugu... Peperi aipatzen niokan... Gure xalupa «ALBA XURU»-a, ez dik parerik portu guzian... Han ziagok ainguran, motor guzia erreberritua, zubi gaina saluna bezin garbi, tinta berriaz iguzkiari dirdir... «ARRANUA», «GERNIKA» eta gainerateko zalupak haren itzala ere ez dituk.

ZURRUT: Laster abiatuko gaituk zabalera?

BITTOR: Ba, heldu den gauean berean... Zardina agertzen hasi omen duk... Zenbeit xori pottorro tiroz bota-eta, hekien tripan atzeman ditiztek frango kozkorak ere...

ZURRUT: To, hobe segurki... Ez duk goizegi izanen.

URTXULA: Ai-zu Bitor... Egia da zuen barkuan hotela egiten dezutela... Eta, gela bat, eskotilla azpian, kliante elegante batentzat muntatu dezutela?

BITTOR: Ba, egia da... Gure xalupa pollitak merezi ahal du gau beilari bat.

URTXULA: Eta, ohea, mihisekin egiten diozue?

BITTOR: Ba, behin ere zikintzen ez diren mihisekin.

URTXULA: Eta, gauazko here biarrentzat, badittu muntadurak?

BITTOR: Ba, tomate ontzi kokkor bat, mantta ixilletik eresia.

ZURRUT: (*Bizi-bizia*) Errak... Bornuko ixtorioak utziko dituk gero bornuan. (*Bertzeak kurkur irriz ari dira*)

PEPE: (*Emeki hurbildu zaió Urtxulari, zangoz hunkitzen duela... Urtxulak bere josturako otarrea pausatzen du bere eta Peperen artean, Pepe ez dadien sobera kontrarat etor*)

URTXULA: Beha, ez den pollita nere josturako otarre hau?

PEPE: Ba, hala da. (*Eskutan harturik otarrea, nabi luke oraino gebiago hurbildu*)

URTXULA: Otarre hori utz-azu, zu eta nere artean... Baitezpada hortxet biar det hori!

PEPE: Bon, bon... (*Konprenitzen du eta puxka bat urruntzen zaió... Bertzaldek, Bitor heldu zaió kontrarat*)

BITTOR: Nahi duzu nik haria atxikitzea?... Ori, hola, esku huntaz!...

URTXULA: Eskerrik asko... Ez det zure eskuaren biarrik... Baditut nereak bi.

BITTOR: (*Bizkar aldetik besoa bedatzen dio*) Zer neska xarmanta zu!

PEPE: (*Honek ere, Bitorrek bezala besoa bedatzen du*)

URTXULA: Ken esku horiek hortikan. (*Ez dute obeditzen*) Bueno! Egon bada ni gabe! (*Xutitzen da*) Jes! Zer dezute bada hola neri lotzeko? Lot zaitezte orai elkarri.

ZURRUT: (*Irriz*) Zuen ustez, polliki malobratuz hurbildu zarete xalantari, ba bainan xalantak defentsa azkarrak baititu eta abila gora.

BITTOR: Ba, bilduko diagu ba xalanta hori oraino, aborretik ez bada, ixtiborretik bederen.

ZURRUT: Ba, kokodilatzaile abila behar dik gero horri hurbiltzeko... Ez duk holako arrain ernerik, nola baita hori...

BITTOR: Den arrain erneenak azkenean biltzen dituk, «xaltian» ez bada, «ardorian» bederen.

ZURRUT: Nahiago diat nere lupiña zahar hau arrantzatu, arrain mota hori baino.



URTXULA: Arrazoin dezu... Ez baitzera, zure arpegi zikinarekin, aski peita fina ni apastatzeko.

ZURRUT: Badakit, zuk erran gabe, kottillundun arrainek ez dutela grazia handirik nere mutur beltzarentzat.

BITTOR: Ai, ai, ail!... Hik ere sarea eriatu duk, bainan harrokeri lotu zaik.

ZURRUT: Sarea?... Ez dik balio holako arraineri sarerik eriatzea, izurdieri baino gehiago. Tiroz eta harpoinaz behar dik egin holako en arrantza.

URTXULA: Horrelako arrantzako aldian bazerate hara Manana xanket heldu... Aski dezue horixet biltzea.

MANANA: (*Sartuz*) Urtxula... Amak, zuen ostatura, pinta bat arnoren bilara igortzen nau.

URTXULA: Ekartzu botoila... Agudo beteko dizut... Dirua hor dezu?...

MANANA: Ba, ba... Horra kontua, xuxen, xuxena. (*Urtxula ateratzzen da*)

ZURRUT: Manana, norentzat duzu arno hori?

MANANA: Ama eta bientzat.

ZURRUT: Zenbat pinta edaten dituzue egunean?

MANANA: Batzuetan bat... Eta, amak sosa hunkitzen duelarik, orduan bi.

ZURRUT: Nork edaten du gehienik?... Zuk edo amak?

MANANA: O, amak aise! (*Eriekin jestuak eginez*) Nik botoila horraraino, eta amak bertze guzia... Ba, eta gero batzuetan, moxkortzen da... Eta nik orduan irri egiten diot... Zer nahi erraten du... Kantari eta dantzan ere aritzen da, orduan... Oas, egun horietan, dantzan hasi-eta, ez da erori?... Eta gero, hau dena uspeldua zuen!... (*Gibel mazela erakutsiz, irri egiten du*)

ZURRUT: Nork tratatu du?

MANANA: Nik?

ZURRUT: Zerekin?

MANANA: Baratxuri xixtorrekin... Hek urean irakitu, trapu batean eman, eta gero ttpa-ttpa, uspelaren gainean pausatuz.

ZURRUT: Zer usaina ahal duen amak tratamendu horrekin?

MANANA: Bo... Ez... Baratxuri usaina.

ZURRUT: Errazu! Eta, egia da gizon-gai ketan ibilki zarela?

MANANA: Ez dakit... Amak nahi luke ba laster esposatzea... Bi emazteki garela... Ez dela aise bizitzea... Gizon bat behar ginukela, sos pixka bat irabazteko... Gizonaren manttarekin, aiseago bizi gintazkela... Ba, ba...

ZURRUT: Ori, zure sahetsetan badituzu zure senar nahiz erotuak, bi gizon... Eta, bat, untziko patroina... Horrek mantta ederra irabazten du... Hori behar zinuke gizontzat hartu.

BITTOR: Errak, utziko nauk nihaur nere sareen eriatzerat... Ari-adi hiretzat arrantzan, ez neretzat.

ZURRUT: Bai, horixet bai, zuk behar bezalako gizona liteke... Gaztea, zintzoa, eta gainera patroina.

MANANA: (*Bitorri hurbiltzen zaio gero eta gehiago, Bitor bartarik urruntzen delarik, emeki*)

ZURRUT: Zer gaki haiz?... Peitari ihesi, to?...

BITTOR: (*Alki bururaino heldua. Betbetan xutitzzen da*) Ai, ai, ail!... Arranpa tzar batek zango hau hartu zaitak!... Ai, ai, ai...

MANANA: Zer duzu?... Zer duzu?...

BITTOR: Ez da pitsik... Ez da pitsik... Xutitu-eta, ganen zait... Ori... Ikusten duzu, gan zait.

ZURRUT: Errazu, Manana... Bertze hori ere hor duzu gero?... Hori ere gaztea da.

MANANA: Ha... Ba, ba, ba. (*Peperi hurbiltzen zaio... Hau, lehenik urruntzen zaio Mananari, eta azkenean xutitzzen da, Bitor bezala*)

ZURRUT: Bon, bon... Akabo etxea!... Egundaino ez diat holakorik ikusi... Oiloa agertu, eta oilarrak ihesi... Nik ez zaituztet zuek biak konprenitzen... Axtian, nehondik ere, xalanta behar zintuten... Eta nik orai, xalanta bat zuenganat largatu, eta, biak harenganik ihesi zoazte.

BITTOR: Bertze aldian guri largatuko dituk panela osoko xalantak, eta zilatua hirezat atxikiko dituk... Errazu, Manana, zoazi horren ondorat ere puxka bat... Errabian dago zurekin buruz-buru goxatu nahiz!

MANANA: (*Hurbiltzen zaio Zurruti*)

ZURRUT: (*Oihuz, amuari zerbaiz lotzen balitz zaio bezala*) Ai, ai... Arrain itsusia... Zakaila, zakaila bat!

MANANA: Nun ikusten duzu zakaila?

ZURRUT: (*Eriz Manana erakusten du, hau obartzzen ez dela*) Huna, huna!... Hor, hor!...

MANANA: Ez dut ikusten.

BITTOR: To, ederki ziagok... Zakaila zakilarekin.

ZURRUT: Ez da urean... Leihorrean da.

MANANA: Ha, otarrean? (*Otarrea, miatzzen du*) Jes... Ez da hemen ere zakailik.



ZURRUT: Errazu Marrana... Badakizu zer diren arrosa eta eztiā?

MANANA: Ba, badakit...

ZURRUT: Zu, neretzat arrosa eta eztiā bezala zare. Maite zaitut ba nik...
Zuk ere maite nauzu ni?

MANANA: (*Irriz, ez du errepustarik emaiten*)

BITTOR: Bon, bon... Astokeriarik, aski badiagu orai... Apaila-adi ahal dukan bezala, hire zakaila, arrosa eta eztiēkin... Errak, eta gau huntan, hiru orenetako listo gero... Xalupa mutilari errana zioiat bertze bornuko lagunen abisatzeko... Hik, aski dituk arbia eta turtoa kargatzea... Bolintxa hartuko diagu, peita pixka bat, ahal badugu, egiteko... Bon, bagoazik.

ZURRUT: Ongi duk... Ni listo han izanen nauk aingura altxatzeko, goizeko hirutan.

BITTOR: Sarri artino bezal!...

ZURRUT: Ba, sarri artino! (*Bitor eta Pepe ateratzēn dira*)

JITO: (*Sartzēn da. Hurbiltzēn zaiō Zurruti... Itsasoari behatzēn du, otarrea miltzēn*)

ZURRUT: Nor haiz hi, to?

MANANA: (*Trufaz*) Hori, jitoa da... (*Jitok eta Manacak elgarri mibia tiratzēn diote*) Kasu emazu... Ohointzak ere egiten ditu.

URTXULA: (*Oibuz*) Manana!...

MANANA: To, Urtxula oihuka... Zer da?

URTXULA: Ator hunara, arnoketarat. (*Manana ateratzēn da*)

ZURRUT: Aita, nor duk hik?

JITO: Ez dut.

ZURRUT: Eta ama?

JITO: Ama?... Preso.

ZURRUT: Norekin bizi haiz ba?

JITO: Nere buruarekin.

ZURRUT: Non lo egiten duk?

JITO: Nere atorraren barnean.

ZURRUT: Urde zirtzila hi... Holako errepusten ematen ikasi huen ba hik ere, mukuak kentzen baino hobeki. (*Ixilik daude ixtant bat*) To, horra bertze bi errementak heldu... Potzo eta Kalaxka... Horiek zertarat heldu diren, jakina da... Kanibeta jokorat, edaria pariatuz.

KALAXKA: Tana hunarat... Bota jokak... berrogoita hamarna libera... Hemen marra... Landatzen diat kanibeta marraren gainean... (*Jitori*) Hik, mutikoa gure jokak atxikiko dituk, eta

kintze bakotxarentzat, irabazleari hamar libera emanen diozkak... (*Biek ematen dituzte berrogoita hamarna libera*) Totzik jokak... Ematzik zarpan.

JITO: Zarpak zilo ditut.

KALAXKA: Bon... Ematzik nahi dukan tokian... To, ematzik golkoan. (*Hala egiten du*) Bon, tira sosa marrari. (*Kalaxkak eta Potzok tiratzēn dute*)

POTZO: Hi baino hurbilago nauk marrari. Hamar libera hunarat, to... (*Jitok, jauzika, sosa galtzapetik ateratzēn ditu*)

KALAXKA: Lehena hire... Ean bigarrera?... (*Tiratzēn dute biek*) Ha... Hi baino hurbilago nauk marrari... Bigarrena nere... Bota hunarat sosa, mutikoa. (*Jitok ematen dio, beti jauzi eginez*) Tira dezagun berritz. (*Tiratzēn du*)...To, sosa marraren erdi erdian diat... Niri nausitzekotz, kanibeta beharko duk jo.

POTZO: (*Tiratzēn du*) Tenk!

KALAXKA: Zer, tenk?

POTZO: Tenk!... Ez duk aditu, kanibeta jo duela nere sosa?

KALAXKA: (*Hasarre*) Zer ari haiz, hi, ametsetan? Non jo dik hire sosa kanibeta? (*Heien kalapitaz baliatuz, Jito ibesi doa, bek obartu gabe, bere diruarekin*)

POTZO: Hementxet... Horra, hor jo diat kanibeta!...

KALAXKA: Hik, ikusi duk kanibeta jotzen? Hire begieri behatu-eta, iduri ditek gatu-arrain begiak, bainan, sosa ikusi balin baduk kanibeta jotzen, saltzen ahal dituk, lehenbailehen, hire begiak, trapu-tzarketariari.

POTZO: Hi ere, ez baduk tenkako hori aditu, gaten ahal haiz buru sahetseko panela horien pixka bat karrakatzerat.

KALAXKA: Bainan, mutikoa, hire sosa, kanibetatik hiru eri trebesetan duk!

POTZO: Ba, kanibeta jo-eta, horrarat erori delakotz.

KALAXKA: Beti gauza bera duk hirekin... Egundainotik zikanero bat izana haiz... Bo, tototo... geldi gaiten... Sosa parti eta geldi!...

ZURRUT: (*Maltzurki*) Ez duzue sosēn partitzeko lanik izanen... Partituak baitira.

KALAXKA: Ale, mutikoa, ekatzik hunarat gure jokak... Beti gauza bera duk hirekin... Bakotxak gure jokak har, eta gauden hortan... Bainan... non da gure mutikoa?...

ZURRUT: Zuen jokozariari, ez dakit zer gertatu zaion, bainan, zuek gaudian hasi-eta, hortxet barna tira-ahala gana da, ipur zilotik su lotu balitzaio bezala...



KALAXKA: Zer?... Galtza laxatzerat?

ZURRUT: Bai... Galtzak laxatu bide ditu, bainan zuen sosen biltzeko.

KALAXKA: (*Harritua*) Zer?... Ebatsi?... Hori ere badiagu?... (*Koleran*) Urde jito kume, zorriek jan, zikina... Eta, hortako alderdia izaki? Eta, hik zertako utzi duk urruntzerat, guri pitsik erran gabe?

ZURRUT: Bai... nor sar zuen tartean?...

POTZO: (*Jarriz*) Bon... Hau ederra diagu... Goizean, gure atxoak emana baitzautan berrogoita hamar liberakoa bi egunentzat, hori duk hori, bi egunen arrantxoa laster despeitza.

KALAXKA: Jito zikina!... Ni, gobernamentua banintz, legea egin nezakek segidan: Jito kume guziak, gatu kumeak bezala, sor-eta, segidan, itotzeko... Eta jito handi guziak, ikus ahala, nor-nahik harpoinean pasatzeko.

ZURRUT: Gaizo jitoak!... Zuk ederki antolatzen dituzu: Egungo hori beti beharrik etorri da!

KALAXKA: Zertako beharrik?

ZURRUT: Hola bederen, aspaldiko partez, zuen jokoko oihu patarreak, lastertxago bururatu baitire.

KALAXKA: Ez zakiat batere, hi ere ez haizen partxuerkoan harekin!

ZURRUT: Bai, zuen diruarekin pinta on baten zigatuz, harek eta nik zintzurra dragatzekoa dugu sarri.

POTZO: Berritz ere, Antonio Irundarrak, hemen balitz, bere usaiako hizkuntza aterako ziken...

KALAXKA: Zer hizkuntza?

POTZO: Bere sudur mintzoarekin erranen zian: «Potella arraio horrek, izorratu gaitik!»

KALAXKA: Bai, behin bederen egia erranen zian... Haatik, ez dik gutaz sobera irririk egin behar... Goazen aintzinat kanibeta jokoan. Kreitean bederen ariko gaituk.

ZURRUT: Kreitean aritzekotan, ni ere hemen naiz, hirugarren.

KALAXKA: Irabaziak galda, eta zorrak uka, ez egitekotz.

ZURRUT: Hauxe zer konfientzia duzun nere baitan!

KALAXKA: Konfientzia hire baitan?... Izana galdua diat, eta berritz etorriko delakoa ere ba.

ZURRUT: Bon... Orduan egonen naiz sahetsetik beha.

KALAXKA: (*Potzori*) Tana hunarat. Tira sosa! (*Ikusten du Manana heldu*) To, hara bertze ixtribilus heldu.

ZURRUT: To, besotan duen haur hori bil banezo. Errazu Manana, zato nere ondorat! Zer duzu botoila hortan?

MANANA: Arnoa!... Urtxulak emana... Portu-Xokorat, arnoketarat etorria nintzen. (*Kalaxka eta Potzo kanibet jokoan ari dire... Diote: tira, hiri, kintze nere... eta bolako*)

ZURRUT: Zure agertzea neretzat, albako izarraren distira agertzea bezala da... Ha, zu bezalako izar pollit bat behar nuke nik espes laguntzat. Nana ba nere ondoraino!

POTZO: (*Kalapitan Kalaxkarekin*) Nerea hurbilago duk marrari, hirea baino.

KALAXKA: Ez, begi kolpean neurtzen diat... Eri trebes erdi batez bederen, ni baino urrunago haiz.

POTZO: Ator hunarat, Zurrut... Ator... Zoin duk sos horietan, marrari hurbilenik?

ZURRUT: Zurea... Zu nausi zare.

MANANA: (*Zurruten onlotik dabil, haren erranak errepikatuz*) Ba, zu nausi zare!

KALAXKA: (*Zurruti*) Hi, ikusi gabe ere, nere kontra haiz.

ZURRUT: Zertako zure kontra?

MANANA: Zure kontra, he?

KALAXKA: Bon, ikusiko dugu... Neurtuko dugu... Goazen neurt. (*Mokanes muturrarekin neurtzen dute*)

ZURRUT: Ba, neurtzen ahal duzu ba.

MANANA: Ba, egiten ahal duzu ba...

KALAXKA: (*Neurtuz lorietan*) Horra!... Ikusten duk?... Horra!...

ZURRUT: Hep, hep, hep! Aise ari zare zu hola?... Sos hau neurtzeko mugitu duzu bere lekutik.

MANANA: Bere lekutik, ba.

KALAXKA: Ez diat nik sosik hunkitu...

ZURRUT: Ba, hunkitu duzu.

MANANA: Ba, hunkitu duzu.

KALAXKA: Ez diatela hunkitu.

ZURRUT: Baietz!

MANANA: Baietz, ba...

KALAXKA: (*Mananari*) Zaude ixilik, zu enoxenta!

POTZO: Ale, ale... Kintzea nere eta bakea.

KALAXKA: Ez eta ez! Ez duk pitsik egitekorik... Ez nauk ni, zikaneroa, zuek bezala... Hola ari baino, nahiago diat batere ez aritzea... Tana, Potzo... Baso bat pagatzen daiat eta hortan



geldi... Hola ez duk gusturik... (*Potzo eta Kalaxka ateratzen dire*)

ZURRUT: (*Mananari, alegia koleran*) Aditu duzu Kalaxka, zuri enoxentka? Zuri enoxenta errateko, behar du gero gizon zitala izan!... Has dadiela berritz enoxentka, zuri... Planxarik ez badu behin ere jastatu, nik jastaraziko diot, esku hau matrailari zabalduz... (*Ixtant bat ixilik*) Oril... Trago bat behar dautazu eman botoila hortarik... Solas eta solas, zintzurra agortu zaut.

MANANA: Ama ez dut kontent izanen, botoila hau ez badiot osorik erematen.

ZURRUT: Doidoia, lepo zolaraino hustuko dut... Zintzurra bustitzeko doia... Ikusiko duzul (*Edaten lotzen da*)

MANANA: Aski!... Aski!... Aski ba... (*Ikaratua*) Ho, horra ama!

KATALIN: Errak, errak... Zer uste duk?... Hire tuio zikinaren garbitzeko, xahutzen dudala nik arno erosteko sosa?... Zikintsua hil... Leher egin baheza oraino hortarik edanez, utziko hintuzket zintzur estalkiraino asetzerat... Nere alaba utziko duk bere gisa, hi, eskale, soineko galtzen doia ezin egile, muki ki saltzaleen seme...

ZURRUT: Errazu, errazu Kattalin!... Zu bezain familia onetik naiz gero nil...

KATTALIN: Hi? Hire ama, zamar eta mukiki saltzen aritzen zukan... Eta, ez gintuzken gero, gure etxean, zuenean bezala, eriekien mukuak kenduz bizi!... Hire kraza usaina kenduko dukalarik mintzatuko gaituk buruz buru... Ez haiz ahalge ere!... Holako haur inozent batez baliatzeko!... Zato hunarat, Manana!... Uliek ere janen zaituzte, horren ondoan egonez... (*Amak alabari botoila hartzen dio, bartarik trago bat edaten, eta biak ateratzen dira*)

ZURRUT: Hau uma-aldia eman dautana... Sua eta urak behar omen dute gizonen arraza suntsitu... Mugitzen ahal dituk... Emazte kien mihiek, hek baino lehenago suntsituko baigaitzitek... Aditu duzue? Haur inozenta omen du, bere alaba hori...

URTXULA: (*Agertuz trufan*) Ai-zu... Zer egin zaizu? Lupiña itsasotik lotzeko partez, lurretik lotu?

ZURRUT: Bai... Ez, lupiña, bainan olarroa.

URTXULA: Eta neskatxarekin konpondu ahal zerate esposatzeko?

ZURRUT: Oraino ez...

URTXULA: Zer dezue bada makurrik?

ZURRUT: Doteaz ez gaituzken antola... Harek guti ekartzen, eta, nik ere, nere intresak zaindu nahi!

URTXULA: Ai, ai... Zer den bankero izatea!...

ZURRUT: Erran!... Haur inozenten besta izanen delarik, behar naun abi-satu.

URTXULA: Zergatik hori?

ZURRUT: Egun hortan, haur inozent bati, behar zionat lore buketa pollit bat eskaini.

URTXULA: Zuk behar diozu ofreitu?

ZURRUT: Nik, bai, nik...

URTXULA: Hori ezin daiteke.

ZURRUT: Zertako ezin ditake hori?

URTXULA: Gure sinismenean ez baita gonbeni, demonioek santa eta inozentari, lorerik ofreitu dezaten.

ZURRUT: Zer egin behar dut beraz?... Demonio naizela eta, donado egon?

URTXULA: Bai, mutil zahar egon, eta, lupiñak hobeki zaindu... Zure lupiñak, pareta gainetik kanabera herrestan eremaki baitu.

ZURRUT: Ha, pilda zikina... Azkenean lotu haiz... (*Lotzen da tira eta tira*) Ator hunarat... Urde makela zaharra hil...

URTXULA: Horrelako indarrarekin, lupiña baino gehiagokoa izango dezu hor... Mazupla bat bai bederen... (*Kanabera tiratzen lagundu bezala nabi du*)

ZURRUT: Bai... Hi kainako itsas otso bat ba hobeki... Neska tzarra... Seska utzan nere gain... (*Tira eta tira ari da*) Urde lupiña makaka zaharra... Ari haiz makelgoan... Bilduko haut ba... Hara, hara! (*Kolera izigarrian*) Kaka zaharra!... Galdu ditinat denak... Amua, haria, plomua... Denak gan ditin berekin... No, leher egin dezatela denek!... Buruko ileak errotik ateratzeko ere badun, holakoetan.

URTXULA: (*Trufan*) Nik uste nor zuen arrantzari ikusi-eta, zu abila zaren-gatik, aise ihesi joango zela, pentsatu du lupina horrek.

ZURRUT: (*Koleran*) Ai-zan... Bakea eman gero... Sobera koleran naun! Bertzenaz, hartu muinotik, eta, igortzen haut, buruz behera, aixtiko arrain horren lagun.

URTXULA: (*Urrunduz*) Ai, arraioa!... Putzurat botatzea aiseago da bai, putzutik kanporat kendutzea baino!...



ZURRUT: (*Bakarrik*) Ongi errana da ba: Zabaleko arrantzari, lurretik ez ari... He, te te... Surat bota nezazke arrantzako puska hauk guziak... Leihorreko arrantza ez da azken ofizioa, bainan azkenaren ondokoa oraino... Huni lotu baino, hobe da, mendiari ere, pikotza eta aintzurraekin lotzea... Bo, to, to... Ez naitek ikusirik hemengo arrainek... Nigatik, dantzan ere ahalko dituk, kaia gainean barnaka... Goazen hemendik! Otoi. Goazen hemendik! Eta, urus izan zaitezte, ni berritz etorri arte.

BIGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Ostatu barne bat.

URTXULA: (*Kadirak mabain gainean ezarriak, garbi eta garbi ari da. Ezagun da zainak airean dituela*) Bai, egun nere festa eguna, ondoko ohoratzen det... Goizean, bokata. Gero, jateko guzia... Taberna ere nere gain. Etxeko andrea hor det ohean. Burutik min duela, ahal bezinbat arrabots gutxi egiteko... Bai, bai lo egingo du horrek ere, kuadrilla osoa, hunarat abiatuko delarik... (*Itze batekin, minartzen du*) Ai! Zilla martxandizala! (*Handik harat kadira botatzen du*) Ez baita lehen aldia, itze zikin horrekin minartzen detala... Eta, gainera, ondo sartu...

BITTOR: (*Zango puntetan sartzen da, eta Urtxulari, gibeletik, fular batez, begiak tapatzen diozka*) Pentsa nor duzun hemen!

URTXULA: (*Koleran*) Pakea emazu, asto arraioa! Nor izango baitzera ere!

BITTOR: (*Begiak agertuz*) Besta on Urtxula!... Egun beharko dituzu bi musu eman, zure besta baita.

URTXULA: Zuri bi musu, bai... Nahiago dittut, paderaren atzeari eman.

BITTOR: (*Esku mutur batetik hartuz*) Ez da pitsik egitekorik... Beharko dituzu eman.

URTXULA: (*Trapuarekin joz*) Pakea gero neri... Gizon kaiku burua! (*Kontuarraren gibelera doa*)

BITTOR: (*Kontuarrari hurbilduz*) Ori, presenta hau zuretzat ekarria dut, zure bestaren ohoretan... Tori hau zuretzat!... Bainan horrek musu bat ealdetzen du ondolik.

URTXULA: Ez naiz zure «regalo» biarretan... Atxikazu zure painolua zuretzako.

BITTOR: Ho, ho... Zer gare?... Arrunt tzarreen? (*Urtxula lotzen da kadiren mabainetik jausten... Bitorrek lagundu nabi du*)

URTXULA: Utzi-azu nere lana, nere gain!

BITTOR: (*Jartzen da... Hotz botza, mintzo*) Bon, bon... (*Ixtant baten buruan*)
Hola behar bada, hola izanen da... Ekazu hunarat baso bat



gorri... (*Urtxulak zerbitzatzen du, eta, moneta itzultzen dio...
Ixil-ixila dagozi, ixtant bat... Urtxula kontuarrean*)

PEPE: (*Sartzen da eta kontuarrari hurbiltzen... Lore buketa tiki bat, bizkar giblean gorderik dauka*)... Agur!...

BIEK: Agur, agur, Pepe!

PEPE: Ekazu baso bat gorri! (*Baso butsa kontuarra gainean pausatutik, Urtxula arnoa hartzerat doalarik Pepek, baso hartan bere loreak ezartzen ditu*)

PEPE: Besta on, Urtxula...

URTXULA: Oi... (*Kontent da*) Zuk polliki harrapatzen nauzu... Eskerrik asko Pepe!... (*Bertze baso batean zerbitzatzen du*)

PEPE: (*Dirna pausatzen dio*)

URTXULA: Ez... Hau pagaturik gabe da... Nere festa delakotz.

PEPE: Milesker!... Beraz, hainitz urtez eta osasun on! (*Editen du*)

URTXULA: On daizula, Pepe!

BITTOR: (*Idorki*) Errak, Pepe!

PEPE: Zer da?

BITTOR: Goazen segidan bornurat!... Errok mekanizierari goizeko bieta-ko listo izan dadien... Bertze bornuko lagunak ere abisatzik!

PEPE: Ongi da... Banoa kuxe-kuxean... Ixtante artino.

BITTOR: (*Ixtant bat ixilik egonik*) Horren loreek, dudarik gabe, nere fularak baino gehiago balio zuten.

URTXULA: (*Mozki*) Libro ahal naiz, zuregatik, nahi dutanaren egiterat...

BITTOR: Ba... hala zare... hala zare... (*Biak ixilik dagozi*)

ZURRUT: (*Sartuz*) Heup... Egun on!...

BIEK: Egun on, Zurrut!...

ZURRUT: Nik, gizon bat eta emazteki bat, elkarrekin buruz buru hatzematzen ditudalarik, badakizue zer pentsatzen dutan?

BITTOR: Zer?

ZURRUT: Nere baitan egiten diat... Edo eginak dituk, edo eginen dituk.

BITTOR: Zer, eginen?

ZURRUT: Ba... Egin-zak ez konprenituarena. (*Ixtant bat ixilik dagozi*)

BITTOR: Errak, Zurrut, hi hain argitua baihaiz gauza horietan, nahi nikek higanik ikusi nola behar den egin emazteki arrantza.

ZURRUT: Emazteki arrantza?

BITTOR: Ba... Gizon batek emazteki bat nahi duelarik beretzat bildu, nola behar duen haren arrantza egin.

ZURRUT: Noiz nola... Xori arrantzarietan, badituk brokuak... Brokuak, airetarik arrain zardana bat ikusten dutelarik, hartarok zutean, gain behera, sartzen dituk... Badituk ere pottorroak... Pottorroak berritz, arrainetarat hurbiltzen dituk ur azpiz, urrundik igerikatuz... Emaztekien arrantza gisa berean duk. Batzuetarat brokua bezala hurbil ditake, batbanean, basaki, bainan bertzetarat, legunki, eta azpiz, behar dik apailatu.

BITTOR: To, ni entseiatu nauk brokua bezala, eta, pottorroa bezala ere, bainan, tirrit ez diat bururatu.

ZURRUT: Entseiatu haiz peita pixka batekin?

BITTOR: Ba... bainan, nere apastari arrainak tu egin zio.

ZURRUT: Zer duk hire arraina? Arrunt soraioa?

BITTOR: Nere ustez erregina pollit bat. (*Keinuz Urtxula erakusten dio*)

ZURRUT: Erregina iduriak, badituk gero laputzak ere... Eta, partikulazki kasu handia eman behar dik Bidasoako arrainekin... Hangoak baitituk tronpakorrenak.

URTXULA: Bai, enganatutzea erreki egiten dute, broku eta pottorroen orde zozoak direlarikan arrantzan.

ZURRUT: Eta, gainerat, hango arrainek, badituzte zizta punta batzu, zakailek eta atunek baino pozoingoa.

URTXULA: Ez dute ez hango arrainek, zu bezalakoari zizta hainzirik egingo... Apasta zailegia zera orai, hek zuri lotzeko... Ez ahal zenuke petrentziorikan ere...

BITTOR: Bon, bon... Goazen hemendik!... Berdin, orratz eta harika, emaztekoa, beti gizonari nausituko duk... Errak! Sarri, bi orenetako, kaian izan adi gero listo... Atunketarat gan behar diagu.

ZURRUT: Atunketarat? Ez duk uste ez den goixko? Menditik jautsi diren urekin, itsaso zikin eta hotz duk oraino, atunarentzat.

BITTOR: Berak erakusterat emanen dik.

ZURRUT: Goiz huntan, zabalean, zakarrerria gogorra omen zukan. Ez zakiat, zoin ere, ateratu duk... Ba-eta, laster sartu ere... Sarea brankan oraino... Beharko! Popatik, itsaso bizkar alimale batzu hartu ondoan.

BITTOR: Ipar aldean ez bagaitzke ibil, jokatuko gaituk, eztiagora, hego alderat... Eta, ez bazukek atera, buia hartu-eta, listo egonen gaituk, denbora hobetu artino!

ZURRUT: Bon, nahi dukan bezala...



BITTOR: Beraz, sarri artino, to!

ZURRUT: Ba, sarri artino!... Urtxula, ekar-an hunarat baso bat gorritik!

URTXULA: Badezu dirurik pagatzeko?

ZURRUT: Aski dun, orai bezala, karnetean markatzea.

URTXULA: Paperean apuntatuak, hiru hilabeteko zorrak hor dituzu... Eta, jadaneko esana dizut etxeko andreak ez duela nahi, zuri gehiago zerbitzatzea, dirutan baizik.

ZURRUT: Ez gaitun aixtian aditu?... Atuna abiatu dela... Laster denak pagatuko ditinatela...

URTXULA: Aspaldi du, zukan kanta hori aditzen degula... Aski dezu hor puxka bat sofritzea.

ZURRUT: (*Sakelak miazten ditu*) No... Baditinat oraino berrogoita zazpi sos... Ekar-an berrogoita zazpi sosen arnoa?

URTXULA: Ez dezu izango... Baso baten sari ekartzu, edo pitsik ez.

ZURRUT: Egiazko Hondarribitarra haiz ba, hi ere. Hondarribitarrak, lauetarik hiru, Afrikatik etorrikako mahometanoen umetarik ditun... Lehen, zer nahi Afrikano etortzen zitunan Hondarribirat. Heien ofizioak: bota ziratzaille, barbillero, kakaue-ta saltzaille eta hola... Hire aita ere, holako zerbaite bide zunan... Gure ama gaixoak erraten zinan: Ni deusentzat ez nindukek esposatuko Hondarribitar batekin.

URTXULA: Zure ama ez zen esposatuko nere attarekin. Banan, ez eta ere, nere attaren alaba, zure amaren semearekin.

ZURRUT: Hasteko, Hondarribitar gehienak usainetik seinale ditun... Araba usaina diten, eta, Kristaurik ez zuken heien ondoan bizi... Ni, Gipuzkoako gobernadore banintz, legez bortxa nezazken Hondarribitar guziak, xanpainaz zortzitik bederen, beren buruen garbitzera.

URTXULA: Zuretzako ere lege bera on laiteke, zuk dezun taberna eta zerritei usain hori norapait bialtzeko.

ZURRUT: Ekar-an baso bat arno hunarat!

URTXULA: Ez dezu ardorik izango, nik dirua kobratu artino.

ZURRUT: Hondarribitarrek, beren solasak berak, bertze euskaldunak baino zikinago ditizten... Hondarribitar atsoek arrain mota bat, oihuka, karrikaz karrika saltzen diten... Eta heien oihua holaxet dun: Kailaputa... Kailaputa fresko freskoal!...

URTXULA: Bai, guk ere, «borratxeta» esaten degu arrain bati... Eta zeuk hari berari: «Kaka-jalia»... «Kakajalia» dudarikan gabe, solas garbia izango baita...

ZURRUT: Nun dun etxeko andrea?... Hik ez badun edaterat eman nahi, harek hi baino bihotz hobea din... Harek ematen zaitan...

URTXULA: Etxeko andrea ohean dago. Burutik minez dago, eta, esana du hura bere gisa uzteko.

ZURRUT: Erron, ni zerbitzatzerat etor dadien.

URTXULA: Bai, pagatuzko klientientzat, eta ez, ez pagatuzkoentzat etorriko ahal da.

ZURRUT: Ez badun ekarrazten, zuen Pinto, saingaz has-arazten dinat... Hola atzarri-eta, etorriko dun.

URTXULA: Jaungoikoak beira horrelakorik egittetik!

ZURRUT: Bai, eta kuxe kuxean oraino... (*Saingaz lotzen da*) Haul! Haul! Haul!... Pinto, te, te, te!... (*Atearen bertzelaldetik zakurrak errepusta ematen dio*)

URTXULA: (*Koleran erotua*) Ixilik egon... Ixilikan, lotsagabea!... Jotzen zaitut gero: (*Trapu batez aboa tapatzen dio*) Trapu hunekin itozten zaitut, agudo. (*Zakurra beti saingaz, eta ateari atzarpaka ari da*)

ALETXANDRA: (*Ileak airean, koleran*) Zer dire manera hauk?... Batetik zakurra... Bertzetik borroka... Urtxula, zer ari zare hola?

URTXULA: Parrukiano zikin hunen faltak dira denak... Zakurrari, zu ernatutzeko, saingatu dio.

ZURRUT: Aski zunan edaterat ematea.

URTXULA: Pagatu gabe, edaterat nahi du...

ALETXANDRA: (*Koleran*) Ernozu edaterat zikintsu horri... Ase eta, leher egin dezala!... Orduan bederen bakea emanen du.

URTXULA: Berritz ere, etorriko da ordea, hola tratatzen badezu.

ALETXANDRA: Zorrak pagatu arte, datorla... Hek pagatu-eta haatik, fini izanen da gure etxean kreita... Fini... Eri pototsari musu ematen diot: Orduan fini eta fini... (*Ateratzen da*)

ZURRUT: Hobe diat beraz beti zorretan bitiztea. Hola beti kreita izanen diat.

URTXULA: (*Zerbitzaturaz*) Torizu zure ardoa... Tragain arraioa zu!... Agian horrekin itoko zera.

ZURRUT: Agian ba!... Horrekin nahiago dinat, urarekin baino. (*Edaten du solasari gaki diren jestuak eginez*) Ha, edari urre gorria, errespeturekin hartzen haut nere erien artean... Edaterat goazen baso arnoa, lehenik altxa dezagun bi eriez, eta beha diezogun, begien ongi satisfatzeko horren balusa nir-nir beroaz... Gero, sudur azpirat hurbil dezagun sudurra horren



zapore gozoaz hazteko... Eta orai, edan dezagun... Lehenik xorta bat pasabideen garbitzeko... Gero trago on bat, gorputz guziaren satisfagailu... Ha, zer gauza hau!... Arnoa norbait da gero. Eta norbait bezala behar zaio mintzatu: Ba, nik nahi bezala haiz. Pasatzean, zintzurra pixka bat karrakatzen duk... Eta ondotik uzten duk zapore garratx bat, idor eta karats aire, azukre soberarik gabe... Hi eta ni, beti adixkide izanen gaituk. (*Urtxulari*) Zer kara egiten dunan no, Honddarribil!...

URTXULA: (*Koleran*) Ez ni gehiago errabian jar... Eskoba honekin jo-eta bialtzen zaitut gero zakurren ipurdirat.

ZURRUT: Erran... Kliantak atetik kanporat ematea ere, polliki dun ba, haraino igorri gabe.

URTXULA: Zu bezalakoen tokia han dago.

ZURRUT: Erran, ez dun uste, hik eta nik, elkarrekin ematen bagine, lore buketa pollit bat egin ginezakela?

URTXULA: Bai, arrosa astokarloekin bezala.

ZURRUT: Hola ez bahaiz kontent, emanen gaitun hi lore, eta ni lore-untzi.

URTXULA: Gure etxean, ez da lorerik pizuntzietan jartzen.

ZURRUT: Oi-sus!... Hauxe minagria haizen no! Ez izanagatik hiretzat agrados, ez gero uste izan nexkatxa guziek tu egiten dautatela... Segidan hemen izanen ditun frogak... Hor heldu baita neskatxa xarmant bat... (*Manana agertzen da*) Agur Manana!...

MANANA: Agur, Antton!

ZURRUT: Hola, ba... Norbaitek bederen nere izena erran dezala... Aditzen Urtxula?... Antton dinat nik izena, eta ez: Zurrut.

URTXULA: (*Mananari*) Zer nahi zinuen?

MANANA: Amak igortzen nau... Pinta bat, gorritik, emateko.

ZURRUT: Zato gaizo Mariana. (*Urtxulari buruz*) Ez Manana, ez... Zato, jar zaite nere ondoan. Behar ditugu bi solas egin.

URTXULA: Manana!... Lotsagabe horri, zuhur badezu, ez zaitela fidatu!

MANANA: (*Mihia tiratuz Urtxulari*) Hik, zer behar dun gure aferetan?

ZURRUT: (*Alegia koleran*) Ba... Hik zer behar dun?... Zer haiz?... Jelos?...

MANANA: Zer haiz?... Jelos?...

URTXULA: (*Zurruti*) Ez uste izan, hori bildu dezula-eta, broku edo potto-rrero famatu bat zerala... Edozein zozokume aski bailitake lan horretako.

ZURRUT: Jes!... Aise ematen dun hik jendea zozo kaiolan... Ekatzin hunarat bi gorri, bat Marianarentzat eta bertzea neretzat.

URTXULA: Bai... Nork pagaturik?

ZURRUT: Pagatuko ditinat ba.

URTXULA: Bai... Patrikera zilokekin.

ZURRUT: Nik zarpak zilo izanik ere, hau hemen dun gero... Mariana erakuts-ozu ehun liberako hori: Hor badun pinta bat arno eta, bi basorena... Ez da hala, Mariana?

MANANA: Ba, preseski!...

ZURRUT: (*Alegia kexu*) Dirua eskutan heldu den klianta ere ez dute erresetatzen ostatu huntan.

URTXULA: (*Eskeer gaxtoz zerbitzatzen ditu*)

ZURRUT: (*Urtxulari*) Eta, zerbitzari ongi ikasiek, irri tiki bat ezpainetan zerbitzatzen ditin, eta ez holako arpegi ilunarekin.

URTXULA: Leher egiteko pozoia balitz botoila huntan, orduan bai, irri txiki batekin zerbitza nezake.

ZURRUT: Debru kamartza zizta!... Hortako hobe hitake ba, hi!... Edan dezagun, Mariana!... Txintxin... Tori! Beharrik etorri zare... Bi solas zurekin egin nahia nintzen.

MANANA: (*Kontent*) Ha, ba!

ZURRUT: Zuen etxean bazinukete ohe bat neretzat?

MANANA: Ba... Gure etxean badire bi ohe... Bat amarena, eta bertzea, nerea...

ZURRUT: Nik, zure ohearen xoko bat aski nuke.

URTXULA: Ai, zeruko senora! Bakotxa bere xokoan egongo ahal dire!

ZURRUT: Zer gogoratzen zain, no?... Ez dinat gero mezarik gabekoa esposarik egingo.

URTXULA: Horrelako esposa ez laiteke biarbada mezarik gabekoa izango, bainan buru-buztanik gabekoa.

ZURRUT: Ba, pentsa zan nahi dunena... Guri berdin zaukun... Errazu, Mariana, zure ohean, xoko tiki bat emanen dautazu?

MANANA: Ba... Ohe guzia ere emanen dautzut zuretzat. Amarekin lo egiten dut nik... Hala egiten dugu beti neguan... Beroago izateko...

ZURRUT: Aipa-ozu amari, ean nahi nauen ni... Eta, nahi banau, zuen etxer-
rat etorriko naiz bizitzerat.

URTXULA: Bai, lehengoan gainera, holako garnidura baten biarra daukate haukien etxean.



ZURRUT: Ez zazula kasurik egin, Mariana... Jelosiaz mintzo da... Ikusiko duzu... Biak esposatzen bagare, ez duzu izanen ni baino gizon zintzoagorik... Langilea, erretiratua, bere paga xuxen etxerat ekarriko duena... Zuk, askiko dituzu barneko lanak egitea.

MANANA: Ba... Goizean ere, nik egina dut baratxuri salda.

ZURRUT: O, baratxuri salda! Zer gauza: Izigarriki maite dut, goizetan barurik.

URTXULA: Bai, kaka on baten ondotik baratxuri zopa omen da sendagai-lurik hoberena.

ZURRUT: Iduri dun frogatua dunala.

URTXULA: Frogatua?... Nik ez... Bainan, zu, zu horretako maestro baitzera, zure ahotik ehun aldiz aditurik daukat.

ZURRUT: (*Oihu*) Ai, ai... Ama gaixoa!... Kasu kasu... Horra «bruilarta» eta zurrumiloa!...

KATALIN: (*Kanpotik*) Erran, erran!... Zer haute, orratz zilotik zerbitzatzen pinta bat arnoren beha hoinbertze denbora egoteko? (*Ager-tzen da*) Ha, bi gurutzeak! (*Mananari*) Nik ez zakinat zoin oiloren xittoa haizen hi, holako zikintsu zikin bati kasu emateko. (*Zurruti*) Eta hik, jakintzak, nere alaba ez baduk bere gisa uzten, hertzeak hustuko dizkiatala mato batekin bizkarra berotuz.

MANANA: Ama!... Nerekin esposatu nahi duela erraten daut.

KATALIN: Hirekin, aker hori?... Gaixo bildots inozenta hil... Zertaz bizi-tzeko?... Horren putzez?...

ALETXANDRA: (*Sartzen da*) Zer dira oiuhu hauk barne huntan? Katalin, ez zintazke apaltxago mintza?... Ni burutik minez-eta...

KATALIN: Bai, ni etortzean ditun, hik ere, buruko eta tripako minak.

ALETXANDRA: Zer uste duzu? Alegia min egiten dudala?

KATALIN: Aski dun hobeki gobernatzea. Gutixago triguan ibiltzen bahintz, sanoago hintake hi ere.

ALETXANDRA: Noiz ikusi nauzu ni triguan?

KATALIN: Barne huntan ez duzue bertzerik egiten... Eta zer nahi duzue?... Nere alaba, zuek, bezala bilakarazi?... Hik ez dun alabarik zaintzeko?... Hire barne zikinduarekin, ez haiz eta, behin ere kapable izan, baten hazteko.

ALETXANDRA: Emazteki mozkor zikina... Zoazi hemendik kanpora!

KATALIN: Ba... Ganen naun... Manana, nana hunarat, hi ere... (*Zurruti*) Hi bezalakoak, piper gorri bat gibeletik, eta hari su-eman eta, lasterkatzea merezi likek... (*Ateratzen da*)

ALETXANDRA: Zer emazteki mihi asprea, hori ere... (*Ateratzen da*)

URTXULA: Zuk ere, broku eta pottorroka, alaba bildu dezue, bainan ez haatik ama.

ZURRUT: Makela zahar bat dun hori.

URTXULA: Nolaz ez diozun ohe kantail bat galdatu horri ere?

ZURRUT: Sobera beldur naun, no, baietz, erran dezan.

URTXULA: Bai, biak ere ez dezute, bati kendu-eta bertzeari emaitekorik.

ZURRUT: Milesker, hire konplimenduaz... Bainan, ez dun hori nik maite dudana plata.

URTXULA: Zu, gizon abila zera gero. Goiz huntan berean, badituzu jadanik, bi baso arno dabalde klikaturik...

ZURRUT: Bai, eta egingo ditudanak bertzalde... Ikusiko dun, no, hor heldu baitire: Kalaxka eta Potzo. Beharko dituen, horiek ere, pixka bat arindu.

KALAXKA: Tana hunarat, Potzo!... Behar diagu erkatza tratatu... (*Zurruti*) Hor haiz, hi ere, zerria!

ZURRUT: Zuen zerbitzuko, adixkideak, zuen zerbitzuko.

KALAXKA: Egiteko dugunarentzat, ez gaituk hire zerbitzuen beharretan... Badiagu gure buru zerbitzatzen aski lan... (*Urtxulari*) Non da Aletxandra?

URTXULA: Hor, barneko aldean; burutik minez dago.

KALAXKA: Ai, hanbat gaixto!... Nik urrikari diat buruko minaz joa dena... Ez duk min gaixtoagarik... Nik hori bazekiat, nere gustuz. Ekatzu hunarat, bi gorri!...

POTZO: Buruko mina pitsik ez duk, tripako minaren aldean... Tripako mina, hura duk hura, lazgarri.

KALAXKA: Tripako mina?... Aipatzea ere ez dik balio... «Tirrit eta tarrat» egin-eta, gana duk hura. To... Nahiago ditait nik, bortz tripako min, buruko min bat baino.

POTZO: Ha, gaixoa... Gaixo pirua!... Hik izan dituk buruko minak eta bizi haiz... Bainan izatu bahu tripako mina... Eta ez tripako min osoa, bainan tripako min erdi bat... han izanen hintzen, zizarrien janari.

KALAXKA: Ago ixilik... Behin ere deusik ikasi gabea, hi! Zilkotik bala batek pasatzen bahau, pasean-pas, aterako haiz... Bainan, aterako haiz, bala bat pasatzen bazaik buruaren erdiz erdi? Horta-



rik ageri duk garbiki, min bera, tripan hobe dela buruan baino. Ez da hori hola Urtxula?

URTXULA: Nik ez dakit, bainan etxeko andrea maiz minez baitago, batean burutik, eta bertzean tripatik, harek esango dizute seguro zein den gaixtoena.

KALAXKA: To, nahi dituk bi baso hauk pariatu, Aletxandrak ni bezala erraiten duela?

POTZO: Ez bi, bainan hiru, lau, joka nezazkek, neri Aletxandrak emaiten dautala arrazoin.

ZURRUT: Hiru, lau baso pariatuz geroz, heien edateko laguntzaile bat beharko duzue.

KALAXKA: Erne hindagon... Hortako laguntzaileak aise hatzematen dituk... Ator halere!... Urtxula, zerbitza-azu hirugarren baso bat, eta errozu Aletxandrari hunaraino etor dadien... (*Urtxulak, errana egiten du*)

POTZO: Ba, eta, ez zakala gero galdea eginez, errepusta ere sala.

KALAXKA: Ez nauk ni zikanero bat, hi bezala... Aski diok hihaurek galdea egitea... To, huna non den Aletxandra.

POTZO: Bon, ixilik!... Errazu, Aletxandra, zure iduriko zer da hobe?... Buruko mina, ala tripako mina?...

ALETXANDRA: (*Samurki behatzen diote, errepustarik eman gabe*)

KALAXKA: Ba... Zuk izaten omen dituzu tripako eta buruko minak: Non-dik da hobe sofritzea?

ALETXANDRA: (*Koleran*) Zer zarete? Nitaz irriz ase nahiak? Ez naiz gero ni, batere jostakura... Nik, nere buruaren errespetua egundainotik atxiki izan dut... Eta, emazteki mozkor baten solaseri kasu ematen badiozue, behar diren gizonak bilduko ditut gero zuen ixil-arazteko, onez onean ez bada, bortxaz bederen... (*Ateratzen da*)

KALAXKA: (*Harritua*) Jes... Zer dik horrek? Hik konprenitu duk pitsik, to?

POTZO: Nik ez... Pitsik... Hori, zerbaitez minberatua duk?

KALAXKA: Badik ba, ateraldi horrek, bere erroa nonbait... Hik, Zurrut konprenitu duk?

ZURRUT: Bai, nik hauxe konprenitu dut... Zuk parioa galdu duzula.

KALAXKA: Nolaz hori?

ZURRUT: Buruko mina baino, tripakoa gaixtoagoa izan behar da... Buruko mina aipatu bazinio ez zen Aletxandra hola asaldatuko... Bainan tripako mina aipatu ordu, ikusi duzu nola kexatu den?

KALAXKA: Ha debrua... Ha debrua... Horra beraz non zian haren solas zurrutzak bere iturria... Berdin zaitak... Hiru baso hauk nere gain... Bainan, dobla segidan, kanibeta jokoan egitekotz...

POTZO: Ba, nahi baduk...

KALAXKA: Bon, basoak huts... Eta, ator kanporat!... Hi, Zurrut jujari... Haatik ez, jito kume hura bezala eskuak bete eta, ihesi gan gero.

ZURRUT: Errazu, ez naiz gero ni jitoa.

KALAXKA: Ba, halatsu haiz ba, hi ere... Bon, goazen!... Ixtante artino, Urtxula!...

URTXULA: Bai, ixtante arte! (*Bakarrik*) Taberna huntan gertatzen diren-kin, zinema egin ditake, zinema... Gizona baino txoroagorik ba ote daiteke?... Urrundik ikusteko hobeak dire, hurbildikan baino... Emakumiek gizonak ezagutzen balituzte, nik bezala, emakume bat, bat gero, ez liteke espostuko... (*Leibotik behatzen du*) To... Pepe helduki... (*Bere burua apaintzen du*)

PEPE: (*Irriz...* Zerbait eskuan gorderek dankala) Agur!... Bakarrik zare?

URTXULA: Oraikotz bai.

PEPE: Sarri libro zare?

URTXULA: Zergatik?

PEPE: Bietan dugu itsasoko tenorea... Ordu artino libro naiz... Heldu zare zinemarat?

URTXULA: Berdin... Etxeko andreari eskatuko diot...

PEPE: Bederatzietako kaiaren hegian izan zaite!...

URTXULA: Ondo da... Zer daukazu eskuan gorderek?

PEPE: Xori tiki bat.

URTXULA: Erakuts...

PEPE: Ez, ez duzu ikusiko.

URTXULA: Bai, biarko dezu erakutsi. (*Eskua hortxatzen dio... Pepek, eskuan baitauka urez beterik, kautzuzko ziringa bat, tirez arrosatzen du*) Ai, urdea!... Izango dezu bai errefera... (*Urtxulak limonada botoila bat harturik, hasten dira, biak irriz, barat hunarat lasterka elkar arrosatzen*) Ai... Hi hi hi!... Bai, nik ere busti zaitut... Ai!... (*Eta holako*)

ALETXANDRA: (*Agertzen da, eta izigarriki kexu*) Urtxula, zer dire manera horiek?... Zer diozkatzu?... Fama tzarrak eman nahi ostatu



huni?... Zure errespetua ez baduzu zaindu nahi, bederen zaint-zazu ostatu honena.

URTXULA: Jostatzen ari ginen.

ALETXANDRA: Jostatzen?... Nonbaitik ere, gizonekin dituzu zure jostetak... Ez zare ahalkatzen ere... Nor-nahiren trapu tzar hola zure burua libro uztea.

PEPE: Ez zaitela kexa, Aletxandra!... Limonada pagatuko dut.

ALETXANDRA: Ez da hortan... Zuk ere, ikas-azu bertzaldikotz, ostatua edateko egina dela, eta ez... eta ez, zerbitzariekin borroka aritzeko...

PEPE: Borroka... Borroka... (*Koleran*) Bon, bon... Badire gero bertze ostatuak ere... (*Ateratzen da*)

URTXULA: (*Trapua botatzen du mahain gabierat, eta, jartzen da, mutur*)

ALETXANDRA: (*Beti koleran*) Ez du balio orai mutur saltsarik egitea?... Erranak erran... Eta, goberna hobeki!...

URTXULA: Bai... Zurea huntan gelditzen da... Bainan nerea?... Zer biar du Pepek nitaz pentsatu?... Zer izango naizela... Zuk nitaz esanen ondotik.

ALETXANDRA: Pentsa dezala nahi duena!...

URTXULA: Bai... Neri tokatzen direnak, zuretako pitsik ez dira... Neri esatekoak, esaten ahal zenituen bai, buruz-buru, eta ez Peperen aurrean.

ALETXANDRA: (*Espaldak altxatuz*) Pepe!... Pepe... (*Ixtant bat ixilik dagozi*) Ala, zer duzu? Ez duzu bederen?... Zer duzu zerbaiz abiadura harekin?

URTXULA: (*Nigarrez xanpan lotzen da*)

ALETXANDRA: (*Eztiiki*) Ha, bon... Ez nekien... Ez du balio ez, nigar egitea... Ez duzu Pepe batere mutiko makurra... Ez liteke batere gaizki... Hola jakinaren gainean izanen naiz... Ale... Segi-atzu hemengo lanak!... (*Ateratzen da*)

URTXULA: (*Emeki bisaia agertzen du... Begiak xukatzen ditu... Peperen lore buketa harturik, usain egiten dio... Lorietan, loreei musu ematen diote*)

HIRUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Karrika luze bat, gauaz, ilargi xuritan. Han da: «Portu-Xoko» deitu ostatua.

URTXULA: (*«Portu-Xokoam» erretira ezin eginaraziz, lau gizon ditu kanporat manatzen: Bitor, Zurrut, Potzo eta Kalaxka*) Ale, zoazte kanpora!... Erretira da...

KALAXKA: Behar dugu lehenik pinta hau hustu... Oraintxet hasia dugu.

URTXULA: Kanpoan aski dezu edatea... Ale kanpora!

KALAXKA: Kanpoan edan?... Ez da hori arnoaren errespetua...

URTXULA: Ardo bai... Ardoak zuen errespetuaz axola gutxi dauka...

KALAXKA: Erran... Patroina eta ni bederen utz gaitzan barnean... Goizeko bi orenak artino... Orduan dinagu zaluparen tenorea... Ixil ixila egonen gaitun.

URTXULA: Ez... Inor ere ez da barnean egongo... Etxeko andrea, burutik minez dago...

BITTOR: Bai... Bere gizon-gaia hemen izan balu, ez zikan ez hura igorriko.

URTXULA: Nere gizon-gaia, ez da zu bezala, erretira ordutan, tabernatik ezin bildua... Ale, egon hor, kanpoan!

KALAXKA: Neska makaka zaharra hi!... Zer uste dun?... Gu despeitu-eta, salbu haizela?... Ikusiko dinagu... Kanporat ematen gaitun, hihauze barne hortan zanpañez asetzeko?... Baziakinagu ba zurruta ixilka egiten dunala...

POTZO: Tana hunarat, Kalaxka!... Kanpoan ere berdin jar zukek... Zer uste duk?... Mokoka emaztekieri nausituko haizela?

ZURRUT: Emaztekoa nagusi mihika, eta gizona, okailuka.

KALAXKA: Ba... Debruen kaka... Ekazue edaterat hunarat. (*Botoila tututik zorta bat edan-eta jartzen dire karrika bazterrean, eta kantari lotzen*)

Ilargia, ilargia,

Gorde gure miseria,

Guk nahi dugun guzia,



Ken txar et eman hobiala...

KALAXKA: (*Oihuka*) Eheup!... Aletxandra... O, Aletxandra! Zer zare? Ohean?... Burutik minez edo tripatik minez?

POTZO: Kasu emak... Kexaraziko duk... Atera eta joko gaitik.

KALAXKA: Agert dadiela, buruz-buru on bada... Aditu duk zer erran duen Zurrutek... Gizona nagusi duk okailuka... (*Oihuz*) Eheup, Aletxandra!... Minez zaudenetz? Mirikua behar dugun ekar-arazi?!...

POTZO: (*Apaletik*) Mirikua edo emagina?

KALAXKA: Arrazoina duk... (*Oihuz*) Errazu, Aletxandra? Nun duzu min? Nor behar dugun ekarri? Mirikua edo emagina? (*Denak zartzaraka irriz*) Ekazue hunarat edaterat... Ilargia... (*Berritz kantatzen dute*)

URTXULA: (*Haren leibo zիրritutik argia ageri da*) Urde nausitu zikiñak!... Ez bazerate ixilik egoiten, ekarraziko det gero guardia-zibila?...

ZURRUT: Bai, guardia zibilak aise enganatuko ditinau. Hire gelarat igorriko ditinau-ta...

KALAXKA: Badun berdin usaia, lehen ere, heien errezebitzeko. (*Lagumeri apaletik*) No, karga zan hori ere bertzeen gainera...

POTZO: To, argia hil dik... Berdin dik orai, horri pitsik ez erraitea.

ZURRUT: Nahi duk, nik, argia hilik ere, barne hortan mugiarazten ditudala.

POTZO: Nolaz hori?

ZURRUT: Ikusiko duzue. (*Ostatuko atearen kontra, saingaz lotzen da*) Hau, hau, hau!... Pinto, te, te, te!... (*Pinto saingaz lotzen da... Eta harekin, sekulako zakurrak nundik-nabitik: Bulta bat saingaz aritzen dire, eta leibotan, han bemenka argiak pizten*)

MARIA: (*Leibo batetik, boza mehar batez*) Errazue, mozkor zikiñak, zuek motorra bero duzuela-eta, ez duk gero arrazoin bat lo egin nahi dutenen nardarazteko.

KALAXKA: (*Apaletik*) Hori, Maria duk... (*Gora Mariari*) Zer duzu zuk hola gure ondotik ibiltzeko?... Baduzu zure senarra... Zoazi haren ondorat, eta gu, bakean utz gaitzazu!

MARIA: Debru mutur handia, hola mintzatzeko hobea haiz ba, etxerat erretiratzeko baina.

LUISA: (*Boza larri batez mintzo*) Erran Maria, nor ditun hor?

MARIA: Nor-nahi dun izatea?... Usaiako trixteak. Zurrut eta haren lagunak.

LUISA: Aletxandraren falta dun dena... Zertako ematen diote edaterat, hein batetik goiti.

MARIA: Berritz erran!... Horrek ederki sosa bil eta guk peka gero... Holako gizonak, axtiko zakur guziak gibeletik huiatu-eta, ifernuko surat behar liezken igorri.

ZURRUT: Miau!... Hau, hau, hau! (*Zakur puziak, berritz ere saingaz lotzen dire. Zakurrak ixildu-eta, haur ttipi baten nigarrak entzuten dire*)

KALAXKA: To, haur bat nigarrez, orai berritz.

AMELIA: Arnoz bete, madarikatu ustelak... Xantza duzue gizona itsasoan baitut... Haurrak bederen utzatzue lo egiterat.

KALAXKA: (*Apaletik*) Titia emon, titia... Aise ari dun nigarrez... Goseak zion-eta...

AMELIA: Ustelak... Ustel zikiñak!... Hil behar lukete holako gizonak, hill!...

KALAXKA: (*Potzori apaletik*) Errak, nik haur nigarrak eginen ditiat... Hik egin zak amakoa. (*Haur ttipien nigarra imitatzen du*)

POTZO: (*Kontsolatzen du*) Alo nere ttikia... Xo, xo. Ori tutua, Ori!... Alo ba, ixo!... Ipurdian joko zaitut gero!... Alo ba, egizu lo...

MARIA: Ez dela nehor izanen horieri zenbait pitzar uren gain behera botatzeko.

LUISA: Pitzar ura?... Ez ura, ez... Kutxua ziotenat nik, ixtantean gain behe-
ra hustuko.

KALAXKA: (*Gara, Luisari*) Zu, gorde zaitte hortik, zure atorra zikinarekin...

LUISA: Zer duk hik?... Ezagutzen haut ba... Kalaxka! Hire andreak bere bokata hoi hobeki xurituko duelarik, nerearen behatzerat etorriko haiz!

GREGORIA: (*Kalaxkaren emaztea*) Erran, erran!... Noiz ikusi dun nere gizona, atorra zikinarekin. Ez din gero, nere gizonak, hireak bezala, Pazkotako atorra, saildatu gabe, Trinitatez ibiltzen.

KALAXKA: (*Lagumeri*) Aditzen duzue nere atxoa?... (*Gora, esku zartaka*) Hola, nere atxoa, hola!... Zaint dezagun gure eskualdea... Maite zaitut ba nik.

LUISA: Aditzen dun hire gizona?... Kaka ederra din no... Izanen dun binar lan, horren galtzen garbitzen.

GREGORIA: Nere gizonaren galtzak utz-aitzin nere gain... Gu elkarrekin antolatzen gaitun. Zer haiz?... Hirearekin kolpeka aritzen haizela-eta, bertzeak ere kolpeka ikusi nahia?

LUISA: Erran hi!... Noiz ikusi naun ni, nere gizonarekin kolpeka?... Ni, kolpeka ikusi nahia balin bahaiz, tana kanpo hortarat!... Eta, hire muino hori ongi tinkatzen ahal dun, ez badun nere atzparretan utzi nahi.



ZURRUT: Oas, sus... Oas, sus... (*Kantuz lotzen dire*) «Ilargia, ilargia...» (*Kantua bururatzean, leiboetarik botatzén diozkeate, tomate untzi eta bertze zer-nabi untzi mota*)

KALAXKA: Ai, ai, ai!... Branleba, branleba adixkideak... Hau bonbardazionea!... (*Ura ere botatzén diote gain behera*)

ZURRUT: Zer zukan hori, to?... Busti zarete?

KALAXKA: Ura izan behar duk... Ez dik beti usainik.

LUISA: Merexi, merexi... Zikintzuak, zuek!... Eta, ez bazarete laster hortik urruntzen, etorri-eta ezkartekin burutik beherakoak bilduko dituzue.

ZURRUT: (*Apaletik*) Errazue... Irri egin behar diagu... Bil-azue bakotzak untzi bat... Bazarete?... Orai, ederki atabalak izanen ditia-gu... Ale, jo atabala. (*Aire aios bat kantatzén dute, untziak atabal dituztela... Zakur guziak berritz saingaz lotzen dire*)

LUISA: Hori soberakina da haatik! Zer debru! Ez da gehiago polizarik karrika hautan?

MARIA: Poliza ba... Pentsatu dun behin bederen. Saltsaren ondotik, noiz-pait, ba agertuko ditun, beti bezala... (*Bertze kanta aios bati lotzen dira, atabalekin, eta dantzán... bainan, betbetan...*)

ZURRUT: Ihes, ihes!... Kaxketadunak! Kaxketadunak!... (*Denak badoazi eskuin eta ezker...*)

OIHUAK: «Halte à la Police»... «Tapage nocturne!»... Kasu gibelean... Hire ondoan duk... (*Poliza xixtuak ere entzuten dire*)

LUISA: (*Denak ixildu-eta*) Atzeman ditizten naski?

MARIA: Agian ba!... Eta, ongi gazituko ahal ditizten!...

LUISA: No, bornura gatekoak baitziren zenbeit gau huntan...

MARIA: Hetaz haiz kexu?... Ez ditun no hainitz gutaz egin... Ez dezagun gure gaua gal, hek berena galtzen dutela eta... Gau on, no!...

LUISA: Ba, gau on!...

OIHALA

LAUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Bigarren gertaldiko ostatu ber-bera.

ALETXANDRA: Ba, egun guziek badituzte beren biharamunak... Atzo gabea, listo zineten karrika guzia nahasteko... Eta egun?... Buruak handi... Hola izaten dire ondorioak.

ZURRUT: Zaude ixilik; torizu... Aski nardatuak gare... Goizean bietan bornuan beharrak, polizak gau guzia gakatu baigaitu.

ALETXANDRA: Ba... Merezitua... Ez zarete ahalkatzen halako furfurietan ibiltzeko, tenore hartan!

ZURRUT: Zer nahi duzu!... Barkatu behar duzu!... Barnea sobera bustia ginuen.

ALETXANDRA: Ba, maiz... Nahi dituzuen guziak guri burutik behera bota-eta, gero denak edanaren gain dituzue... Aski duzue gutixago edatea... Dena den, etxe huntan ez duzu gehiago kreitarik izanen.

ZURRUT: Zorrrak ez ditut ukatzen... Bainan, ez da nere falta arrantzak ez badu pitsik ematen...

ALETXANDRA: Zure falta ere bada... Sasoin gizenetan, ez zare aski mehe egunez oroitzen... Eta, zabaleko arrantzak ematen ez duen egunetan, lot bertze lan mota zerbaiti.

ZURRUT: Ba... Zer laneri?...

ALETXANDRA: Nahi bada, lana hatzematzen da: lantegietan edo kanpian, edo baratzean bederen.

ZURRUT: Ikusten duzu, Zurrut, aintzur bat eskuetan edo, behien aintzinean akiluarekin? Balitake on irri, bazterretan.

ALETXANDRA: Lanak ez du nehor desohoratzen... Ez baduzu lurrari lotu nahi ere, joka gehiago itsasoari. Nere gizon zena gaixoak ez zuen egunik galtzen. Atun zardinarik ez zelarik, bere battelikua hartu-eta, ganen zen hurbileko arrantzarat. Beti, xirbillo, olarro, txitxarro, zerbait ekarriko zuen... Eta, itsa-soa tzarreen zelarik, leihoretik entseiatuko zen... Zenbeit



lapa edo xoila ekarriko bazituen ere, ez zen sekulan eskuak hutsik etorriko.

ZURRUT: Bai badakit... Badire ere, itsasoak botatzen dituen egur, burdin, gorbela, eta gainerateko, bilduz eta salduz, dirua egiten dutenak... Bainan, ikusten nauzu ni, Zurrut, gisa hortako lanari lotzen?... Ni, zabaleko arrantzaria!

ALETXANDRA: Jes... Zure burua ongi jaun daukazu! Zure moko hortarik ez duzularik gehiago izanen zer sar, humilduko zare ba zu ere. (*Ateratzen da*)

ZURRUT: Goazen beti hola-hola, irauten ahal duguno!

URTXULA: (*Sartzen da*) Agur!... Ai!... Etxe huntan ez bide dago lanik!

ZURRUT: Zertako erraten dun hori?

URTXULA: Lanik hemen halitz, ez baitzinake zu hemen izango.

ZURRUT: Ez dun gero nahi dena, lanik egin gabe bizitzen.

URTXULA: Zuk, maketo eder baten gaia bazinuke.

ZURRUT: Zer dun hura? Makettoa?

URTXULA: Makettoa: nonbeitik etorrikako jauna... Itxuraz zerhait dena, bainan diruz eta ohorez, hutsa.

ZURRUT: Ni makettoa balin banaiz, nahi niken hiri bisita bat pasatu, ean hi ere, bertze zerbaitez ez ote haizen, segurtatzeko.

URTXULA: Zer naizela?

ZURRUT: Beldur naun hi ez ote haizen beharri-motza. Egiatzko arrazako jitoak hala omen ditun. Petenta emaiteko tokia, beharri zolan, eskas omen ditun.

URTXULA: Beharri motzez zera mintzo? Hala banitu ere, zureen sobrantiekin, nereak aise petaxa netzake.

ZURRUT: (*Bere baitan*) Eta denen tapagailua hatzematzen dik. (*Urtzulari*) Nik uste, babazuza eta haizea ari ziren egun batez sortua haiz hi.

URTXULA: Bai, eta zu, bero handiz, denak, nekaturik pausan ziren egun batez.

BITTOR: Agur! (*Sartzen da*)

BIEK: Agur!

BITTOR: Ekazu pinta bat gorri hunarat bi basoekin. Erotua, zainak elektrikan ditiat... Holako arrantzako denbora... Kalerna hune-kin arrain guziak harrotuak, iduritzen zaitak ikusten ditudala, ur arrasean... Eta gu hemen... Gure zozokeriaz...

ZURRUT: Bornuko lagunak ikusi dituk?

BITTOR: Ba, ikusi ditiat zenbait... Sarri, berritz bi orenetako kaian listo izateko, erran zioiteiat. Ez duk goizegi izanen, lema berritz eskuetan hartuko dudalarik.

URTXULA: Gau huntan, leihoak idekirik egin ahal izan dezute lo?

BITTOR: Ez ginuen arrazoinik leihoen idekitzeko... Ez ginuen guk aingeru begiralerik esperantza gure leihoetarat.

URTXULA: Zer dirat? Aingeru guardiakoak, kanpotik, zuen guardian egondu?

BITTOR: Bai, zuk nahi duzuna erranik ere, guk lo on bat egin dugu beti.

URTXULA: Hotel gaitzean suertatu naski, horrelako kondizio onetan gaua pasatzeko.

BITTOR: Zer uste duzuz?... Zuen ostatuan direla bakarrik klientak ongi tratatuak?

URTXULA: Nik aditu dutanaz, zuen hotelean, zerbitzariak denak mutilak omen zinituzten... Eta gainera, denak ederki berdin jantziak, kobrezko botoi, kaxketekin eta galonekin!...

BITTOR: Bai... Eta gehiago dena... Gela urririk izan dugu.

URTXULA: Urririk?... Momentokotz omen bai... Bainan hoteleko nagusiak esan omen dizuete, laster karta txiki bat bialduko dizuetala dirua eskatzeko nota koxkor batekin.

BITTOR: Ba, hola dun holako hotel handietan... Ez ditun zorrak eskutik-eskurat pagatzen, bainan «xekaz» igortzen ditun, ondotik, diru galdea. (*Urtxula ateratzen da bere lanaz*) Poliza zikina!... Ederki hatzeman gaitik! Potzo eta Kalaxka ikusi dituk?

ZURRUT: Nik, ez.

BITTOR: Nik uste, hek ere, gu bezala, goiz huntan, libratu bide ditzitek. (*Urtxula sartzen da*) Errazu Urtxula, Pepe etorri da hunarat goiz huntan?

URTXULA: Ez, ez da Peperik hemen agertu.

BITTOR: (*Keinu eginez Zurruti*) Ez zekiat non duen burua, egun hautan, mutiko horrek... Ez duk batere bere baitan... Iduri dik beti zerbaitez gogoan dabilela... Zer ote dik? Zerbaitez afera txar norbaitekin egina? Ez haiz, hi ohartua hortaz, to? (*Zangoz bunkatzen du*)

ZURRUT: Ba, arrazoina duk. Ohartua nauk ni ere.

BITTOR: Atzo azkenekotz, battelikua hartu behar ginuela, igorri diat kaia-
tik, ekar ditzan toleta, ixtripu eta arraunak... Oren baten buruan gibelerat etorri zautak, toleta, ixtripu eta arraunik



gabe. Ahantzia zian zertarat igorria nian ere... Non eta norekin pasatu ote zian ba bere orena?

ZURRUT: Nonineri beha beharbada... Badituk gero nonina pollitak portu hegí hautan.

BITTOR: Atzo aratsean errana niokan: Plata amarra zak gero ongi, gauazko marinel koropilo batez, edo hobeki, bi klaberdez. Goizean plata han atzernan diat harroketan... Nik uste, ez zikan plata batere amarratua, edo bertzenaz, kanpaindar koropilo tzar batez... Bizkitartean, memoria hola galtzeko, ez zukan ba atzo ilargi mudantza ere.

ZURRUT: Ba, ez duk gero baitezpada ilargia behar, gizon bati burua xoratzeke... Batzuetan hortakotz, izar bat bera aski duk.

BITTOR: Herenegun ere, seska puntan atuna lotua; eta han ziokan kabelaren kontra tente, lema pitzua iduri... Lagunek ohartarazi ditek arraina amuan zuela... Ez zekiat, ez zekiat... Hola segitzekotz, arrantzari uko egiten ahal dik... Bainan zer ote dik, hola saindatua izateko? Errazu Urtxula, zuk bazinaki-ke hortaz zerbait?

URTXULA: Harriturik nago Pepe horrelako arrantzari ez deusa bilakatua dela adituz... Orain duela gutxi, gaitzeko kolpe ederra erreusitu zuela esana zidaten eta!

BITTOR: Ba?... Zer erreusitu du?

URTXULA: Arrantzarat joan omen da portuko arrantzari patroí famatuenarekin... Omen zuten biek begistatua erregina arrain oso pollit bat... Patroina jakina eta ondo muntatua ere, entseatu da lehenik erregina txipi haren harrapatzera, bainan ez du erreusitu... Haren ondotikan, Pepe entseatu da... Eta, Peperen jakina gutxi izanagatik, Pepek, agudo beregana bildu omen du erregina... Horrelako fama aditurik nago. Zuk, Bitor, holakorik ez jakin?

BITTOR: Erregina arrantzan zirela duzu aditu? Ez ote ziren hobeki dontzeila arrantzan?

URTXULA: Erregina edo dontzeila, biak hartaz nahituak omen ziran beti.

BITTOR: (*Zurruti*) Ederki amonatu nai to horrek. (*Xutiturik, eskuin eta ezker dabil*) To, radioaren tenorea da... Ean, emazu radioa, zer dioten gure lagunek... (*Urtxulak radioa pizten du. Potzo eta Kalaxka sartzen dire... Han arrunt asaldatua*)

KALAXKA: Ha!... Hor zarete... Poliza nausi zikin horri, ez zioiat barkatuko muturra berotu artino... Gure adineko gizonak behar ziti-

kan preso atxiki gau guzia. Eta oraino, amanda igorriko duela ondotik...

POTZO: Nik, horiek inxtoririk ez diat nahi... Berdin beti arrazoin izanen ditek gure kontra.

KALAXKA: Zer arrazoin?... Ikusiko diagu!...

BITTOR: Xo!... Xo, ixtant bat!... Ean, zer dioten...

RADIOLARI: Ta?... Baduzue pitsik? «Arranua», zueri mintzo nauk... Baduzuen pitsik?

ARRANUA: Ba, gaitzeko xantza izan diagu... Zardana bat segitu-eta, ixtanteko, gorria agertu zaiguk... Sarea eriatu dioguk eta, zakua eginik, gibelerat heldu gaituk.

RADIOLARI: Hobe, hobe!... «Lohitzun», «Lohitzun»!... Non zarete?... Alo ba «Lohitzun»!... «Lohitzun»-ek ez du errepustarik emaiten... «Gernika», alo «Gernika»

GERNIKA: Hemen, «Gernika»... Lau ehun bat kilo atun baditugu... Sarri ez gare sartuko... Denak ongi gare bornuan.

RADIOLARI: Hobe, hobe... Alo «Kaxkalant»... «Kaxkalant»!...

KAXKALANT: Hemen «Kaxkalant»... «Harri Gaxto»-ko ondoan gare... Kurri goazi... Atunak ikusten ditugu, bainan hek ez gaituzte ikusi nahi... Denak ongi gare... Jakin nahi gorriak gare, «Alba xuri»-ren eskipaia zer bilakatua den.

RADIOLARI: Zer dituzue fama txarrak adituak?

KAXKALANT: Ba... Polizek, Zurrut zanpaka hil dutela.

RADIOLARI: Ez zaitez teta kexa... Ez duk Zurrutik hil. Ez duk oraino zerri hiltzeko sasoina... Segur nauk «Portu-Xokoan» gure aditzen dagola.

ZURRUT: Aise duk hola mintzatzea, errefera emailerik gabe...

KAXKALANT: Errak, Zurrut, zer duk Urtxula bildu nahi?

RADIOLARI: Ez, ez omen duk Urtxula aski horrentzat... Urtxulak Zurrut nahi omen likek, bainan Zurrutek ez dik nahi Urtxula, ez duelakotz aski doterik... Berak hala kontatzen dik...

ZURRUT: Urdea!... Botoina hori bira-azuel!...

URTXULA: Zer duzu?... Zehorrek esanen aditzale ez izan nahi?... Aditu hortikan!...

IZAR-EDER: Alo, alo, hemen «Izar-eder»... Kargatuak heldu gaituk gibelera... Gure bornuan fama duk berritz, Zurrut esposatzen dela ihauterian, ama alaba batzuen etxerat.

KAXKALANT: Amarekin edo alaberekin duk esposatzen?

ZURRUT: To... Bertze zerriak handik berritz...



IZAR-EDER: Ama eta alabarekin, biekin esposatzen omen duk.

KAXKALANT: Biekin?

IZAR-EDER: Ba... Berak hala kontatua dik... Ama hartzen dik arnoko, eta alaba oheko... (*Denak irriz lotzen dire*)

KALAXKA: Ederki jorratzen haute, to, horiexek!

ZURRUT: Zerra-azu radio zikin hori!... Zerra-azu hori!...

URTXULA: Bai... Egiten det... Egiten... Berdin, badegu aski aditurik...

BITTOR: (*Kexu*) Ederki trufatzen dituk to gutaz. Hek han beti, eta gu hemen!... Zer astokeria!... Bon... Sarri artino, to!... Eta, erran bezala, bi orenetako listo gero... (*Ateratzen da*)

URTXULA: Ba... Ni han izanen nauk, lehenago ere.

KALAXKA: Heldu haiz nerekin polizarat?

POTZO: Zertarat?

KALAXKA: Poliza nausia, behar diat buruz tripan jo, eta lau zangoz gora bota.

POTZO: Ba, hire espantua bota-zak lehenik...

KALAXKA: Ator!... Hortzak hautsi-eta, burua arrailtzen zioiat, ez badu amanda hautsi nahi.

POTZO: Ago ixilik, xoroa!

KALAXKA: Ator ba... Edo, bakarrik ganen nauk... Poliza debru horri, muturra tinkatzen zioiat, sudurraz kokotsa jo artino.

POTZO: Hi baino torero azkartxagokoa behar dik, to, zezen horri muturra bihurtzeko!...

KALAXKA: Bon... Ez duk etorri-gogo... Ago beraz!... Bakarrik gaki nauk. (*Ateratzen da*)

POTZO: Ba... eta gaki dela!... Ago, mutikoa!... Heldu nauk ni ere!... Debru herrementa!... (*Ateratzen da*)

ZURRUT: (*Urtxulari*) Erran, no!

URTXULA: (*Ez du errespustarik emaiten*)

ZURRUT: Erran no!... Ez dun errepustarik emango?... Ala, mututu haiz? Bizkitartean, gure Jainkoak, arotz onek xorroxtu jorraia eman zinan hire aho barnean...

URTXULA: Bai... Zure ahoan berritz, beti agorturik dagon erreka idor bat.

ZURRUT: Hola... hola... Solas iturri hori idek-an norapait!... (*Ixtant bat ixilik*) Erran, gan den gauean, hotel «Krixketean» ginelarik, hirekin ametsetan aritua naun... Gaitzeko plazera ninan... Hi hintzela nere andre esposa eta nere besoetan eremaki hintudala.

URTXULA: Zure besoetan baino, nahiago nuke olarro zahar baten adar zingiletan ere!

ZURRUT: Bon... Tira-zan tantoa!... Ni baino gizon makurrago batekin gerta hinteke gero, funtsera gan-eta, zer itzal dinat nik, bertzek ez dutenik?

URTXULA: Zuk, gauza bat dezu sobera, eta bigarren bat eskas... Sobera dezu, esku barnean, ile handi, luze bat... Eta, eskas faltseta ondo zerratuko luken bat, zure zintzur-bide egarrarian.

ZURRUT: Gizon edaliez, emaztekiek baduzue beti zernahi erraiteko, nik, gizon edaleak heien andreak baino hamarretan gehiago pleinitzen ditinat.

URTXULA: Zer dezu? Dotrina berri bat orai ere largatzen.

ZURRUT: Hala dun-eta. Gizon edaleak, mozkorra den eguna din bakarrik berea. Heldu baita, astean egun bat duela berea... Eta, bertze sei egunak haren andrearenak ditun... Egundatez baliatzen dun andreak. Andrea berritz sei egunez baliatzen dun gizonaz, mokoka eta erasipean lehertua atxikitzen baitu.

URTXULA: Kontra-apostoluen komentuan, fraile sartzen bazine, predikari lehen zinteke.

ZURRUT: Hire erran guziengatik, segur naun, sartzen bagine, hi serora eta ni fraile, hik baino hobeki eman nezakela nik komentuan.

URTXULA: Bai, gure Jaungoikoa ardo balitz bai, zu fraile zintzoa zinteke.

ZURRUT: Serora karioletan ere, mutilak sartzerat libro balire, eta kafe gehixago edatera eman balezate, hi bezalako xori batzu maizago sartuko litezken. (*Ixilik dagozi... Zurrutek leibotik behatzen du*) No, heldu dun hire pilotoa.

URTXULA: Nor?

ZURRUT: Ikusiko dun... Kanporaino nioan?

URTXULA: (*Leibotik behatzen du... Pixka bat apaintzen da*)

PEPE: (*Sartuz*) Agur Urtxula!... (*Urtxulak, mutur, ez du errepustarik emaiten*) Aletxandrak mokokatu-eta, gurutzea egina nuen, ez nuela gehiago hemen zangorik sartuko... Bainan ez nagoken zu ikusi gabe... Eta berritz heldu naiz... Bainan, zer duzu hola ez neri behatzeko?... Zer zare?... Handian?

URTXULA: Ez zaitut gehiago maite!

PEPE: Gehiago ez maite?... Zertako?... Zer egin dautzut nik?

URTXULA: Atzo, jakin, etxeko andreak ez ninduela ateratzera utzi nahi-eta, etortzen ahal zinen bai hunarat!

PEPE: Aletxandrarengatik, ez naiz etorri.



URTXULA: Bai, eta aratsean, bertze neskatxa batekin zinen zineman.

PEPE: Bertze batekin? Nork erran dautzu holakorik?

URTXULA: Seguretik badakit... Eta gainerat, kalez-kale ibili zeratela, zinemaren ondotik.

PEPE: (*Koleran*) Tori!... Uste nuen ni baitan konfientzia gehiago zinuela... Ba, neskatxa batekin nintzen zineman atzo... Ez batekin bakarrik, bainan biek... Eta gero, karrizak karrika, berdin...

ZURRUT: (*Sartzen da*) Hor haiz?... Alabainan... Pilotoak behar dik izarra segitu... Errak, zuek ez dituzue hor, Berako kusinak? Mari-txu eta Karmen?

PEPE: Ba, hor ditugu, zenbait egunentzat etorriak.

ZURRUT: To... Atzo heieri beha egona nauk: Zer gorputza egin zaioten bati eta bertzeari ere, gan den urtetik hona.

PEPE: Ba, hamazazpi eta hemezortzi urte badituzte gero!

ZURRUT: To... Hemengo mutilek egingen ziotek begitarte... Hi, atzo aratsean, ez haut karrikan heiekin ikusi?

PEPE: Ba... Zinemarar gan behar, eta gan behar, eta segitu nituen.

ZURRUT: Hola duk munduko bizia... Gazteak goiti eta zaharrak beheiti... Errak, zuek esposatzean, mutil gazte lagun etorriko nauk.

PEPE: Galdatzen bazaitugu... Zaude gonbidatu artino.

ZURRUT: Ala zer?... Ez nauzue aski jaun zuentzat? Tattarra eder bat leptotik eman-eta, edozein bezenbat munstratzen diat gero nik ere.

URTXULA: (*Gordezka, nigar zenbait xukaturik, biek arnoa zerbitzatzan diote*)

ZURRUT: Jes... Zer ohoretan dugu baso arno hau?

URTXULA: Edan-zazu... Eta kontua, bego nere gain!

ZURRUT: No... Ez zain maiz hola bihotza lerratzen. Zer den haatik! Amodioak jendea zabaltzen dik, iguzkiak kanpoa loratzen duen bezala.

PEPE: Zuk, amodioaren harat-hunatak, nolaz dazkizu hoin ongi?

ZURRUT: Jakin zak, mutila, arnoa eta amodioa elkarren berritsu direla... Edale dena, maiz amodiozale... Arnoak amodioaren sua berotzen dik... Bazakitek ba hori, emazteki horiek... Gizon baten amodioa nahi dutelarik berotu, hari arnoa sakatzen ziotek.

PEPE: (*Estiki irriz, Urtxulari*) Zuk ere hori bazinakien, Urtxula?

URTXULA: (*Eztiki*) Gaixtoa zu!... (*Ixilik dagozi*)

ZURRUT: To, to... Andregai heldu zautak neri ere!...

PEPE: Nor?

ZURRUT: Ez duk ikusten?

MANANA: (*Sartuz*) Hela!... (*Urtxulari*) Pinta bat arnoketara heldu naiz!...

ZURRUT: Hor zare, Mariana?... Zure ikustea, zeru garbia ikustea bezala da neretzat... Zato nere ondora!...

PEPE: Hobe zaituztet biak zuen gisa utzi. (*Bera, kontuarrerat doa*)

ZURRUT: Ba... Goazen bakotxa gurearekin... Manana... Emazu zure eskua nere bihotzaren gainean... Emazu ba... Hor ba, hor... Senditzen duzu hor zerbaite?

MANANA: Ba, hor zerbaite kusk eta kosk ari da.

ZURRUT: Jakin-azu, koskako horiek hoin azkar zuregatik direla... Egun hau, egun handi bat da zuretzat... Behin ere nehork proposatu ez dautzuna, nik proposatuko baitautzut. Nahi duzu nere andrea izan?

MANANA: (*Lorietan eta abalketua, ixilik dago*)

ZURRUT: Ha... Kontent zare nik hori erranik? Egun handia izanen zela hau zuretzat, errana nautzun... Zu ikus-eta, nere bihotza pilpilka, zartatzeko heinean lotzen zaut... Ez daut, zu beharrez, bakerik emaiten! Eta, hortakotz andretzat galdatzen zaitut... Nahi duzu edo ez?... Errazu garbiki!

MANANA: (*Ixilik dago*)

ZURRUT: Errazu ba, garbiki, lekukoen aintzinean: nahi nauzun ba edo ez?

MANANA: (*Abapetik*) Ba... Gogotik!

ZURRUT: Bon... Aditu duzue?... Ez baitut gero nik nahi bortxazko amodioarik... Eta, jakin-azu, zu andretzat hartzea, izanen dudala merezimendu... Merezimendu handiak izanen ditut... Ez du nor-nahik hartuko zu bezalako andre bat... Zeren... Ez baitzare pollita... Ez du balio lausenguka aritzea... Egiak behar du bere bidea... Egiazki ez zare pollita... Eta, behatuago, eta itsusiago hatzematen zaitut...

URTXULA: Ai, gizon zerria!

ZURRUT: Hik, bakea eman!... Ez naun hiri ari... (*Mananari*) Zangoak eta besoak, hor ibiltzen dituzu kurritzean, hilibili-halabala, nehork ez bezala... Kuraia behar da zinez, zurekin biziari lotzeko!... Bainan deliberatua naiz halere... Eta... Andretzat hartzen zaitut.

URTXULA: Oi gizon higuina!... Kostillak irriz egiteko baliteke, ez balitz nigar-egingarri hola ixilik uzten dutela.

ZURRUT: Zer dun hik, oraino ere?



URTXULA: Zuk, motorrean daukazun gazolina, zure ondoko horrek biarrik ez du odolean.

ZURRUT: Bazakinat zer ari naizen. Nik horiek guziak, espos aintzinean, erraten ditinat... Hainitzek, ondotik erraiten ditine. Zuek bieki ere, ez dun errana, ez dituzuela holakotarik, ondoko egunetan elkarri erranen.

URTXULA: Eskerrik asko, zure abisu onarentzat!

ZURRUT: Hala gertatzen dun eta... Antxuak arditu aintzin behar ditun eskolatu... Orain, ez bada nitaz kontent, libro dun, nahi badu nitarik urrundu. Ondoko egunetan berritz, sakramendua- ren soka lepotik izanen din, eta orduan, nahitez nerekin egotera bortxatua izanen dun. Nik aintzinetik argitzen dinat... Ez dinat enganioz bildu nahi...

URTXULA: Ori, ori Manana, zure ardoa!... Eta, Jaungoikoaz zoaz laster hemendik etxera!

ZURRUT: Etxera? Etxera? Ez zozula kasurik egin, Mariana... Zaude hemen nerekin!... Ikusiko duzu oraino, gu bieki, hemengo jendeak jelsiaz urtaraziko ditugula... Zuk segituko dituzu barneko lanak... Eta, nik, arraina zakuka hatzemanen baitut, ni oraino ikusiko nauzu, xalupa baten jabe, eta hartan, patroin.

URTXULA: Bai, eta bornuko lagun... zorriak.

ZURRUT: Sofri-zan hori. Eta, nere xalupa ez da oraiko xalupa txar hautarik izanen, bainan, bortz-ehun toneletakoa bederen, eta hogoi-eta-hamar koropilo zalu.

URTXULA: Ai... Txorokeriak gizona gizentzen balu, aspaldi zehorrek bazinituzke bost ehun tonela!

ALETXANDRA: (*Sartzen da*) Hor zare Pepe?... Bon... Kontent naiz, ez baitugu karratxorik atxikitzen.

PEPE: Zertako karratxoa?

ALETXANDRA: Bon... Ez atzar haur lokartua... Hor zenaz geroz, nere baitan deliberatua nuena, egingo dut. (*Botoila bat arno xuri buxonatu hartzen du*) Xedea hartua nuen, lehen aldi- an zu berritz hunarat etortzean, hau idekiko nuela... Zuen bien ohoretan. Ale, Urtxula, ematzu basoak!...

ZURRUT: Errazu, Etxeko andrea, laguntza behar baduzu botoila horren arintzeko, bagare hemen ere bertze bi espos-gai...

ALETXANDRA: Bertze bi?... Nor?...
ZURRUT: (*Hitzirik gabe, bere burna eta Manana erakusten ditu*)

ALETXANDRA: Zuek biak? (*Irriz*) Zuek biak? Funtsean, bixitil urtetan zer-nahi gertatzen omen da... Bon, Urtxula, emozkitzute horieri ere basoak... Ale (*zerbitzatzen ditu*), har basoak eskutan!... Ean, nor den lehenik esposatuko... Altxa basoak!... Txin-txin!

PEPE: Errazu, Zurrut, jende handietan, mintzaldiak ere egiten dire holakotan!

ZURRUT: Segurki baietz: Txintxin! Beraz, espos berrien ohoretan!... Esposerat helduz geroz, patar guziak zelaitzen, eta zizta guziak xelaitzen loretzen omen dire... Beraz, esposatzerat goazenaz geroz, gaitzeko zorianaren bezperan gare... Izan gaitela urus! Izan dezagula osasuna, diru hainitz eta familia eder bana!

KATALIN: Erran, erran, Manana... Non hago hoin luzaz?... (*Harritua*) Bainan, zer ari zarete hola?

ZURRUT: Ama, zu ixilik!...

KATALIN: Zer?... Ixilik eta pixilik!...

ZURRUT: Laster, laster... Baso bat emozue huni ere!

ALETXANDRA: Ori!... Gu bezala egin-azu zuk ere!...

KATALIN: Bainan... Zer ari zarete hola?

ZURRUT: Xo, zu... Zu, nere abantxu ama zare!

KATALIN: Zer, antxu edo ernari?...

ZURRUT: Ez antxu, ez... Abantxu... Abantxu ama. (*Mintzaldia segitzen du*) Beraz, gu baitan har-azue etsenplu.

URTXULA: Bai, ikaspen ederrik hartuko dute, guri behatu-ta.

ZURRUT: Hi, ago ixilik... Jende maiteak... Hola da gure bizimodua... Balin baditugu alderdi makurrak, baditugu onak ere... Gure oneri jarraiki zaitezte, eta gure makurretarik beira zaitezte... Ikus- tea, ikastea omen da... Ikusirik, agian hainitz ikasi duzue... Eta ikasi esker, hainitz hobeak bilakatuko zarete...

Eta orain, deneri txintxin! Eta zorian!...